

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Ekintzaileei laguntzeko udal beka-programaren (2019ko bigarren fasean) laguntza ekonomikoen bigarren ordainketaren jakinarazpena. Europako Gizarte Funtsak kofinantzatzen du programa, "Emprende Local 20" izeneko 2014-2020 programa operatiboaren barruan

Tokiko Gobernu Batzarraren 2018ko abenduaren 28ko erabakiz onetsi ziren Gasteizko Udala-
ren 2019ko dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorrak, eta horien 2. atalean zehaz-
ten dira aurreikusitako eremuak eta dirulaguntzen ildoak; besteak beste, Enpresen Zerbitzuan,
24. ildoak, "ekintzaileentzako beka" izeneko (2019ko otsailaren 13ko ALHAO, 19. zenbakia).

Aurreikusitako helburuak eta ekintzak garatzeko, eta aipatutako deialdiaren oinarri oroko-
rretan ezarritakoari lotuz, Tokiko Gobernu Batzarrak ekintzaileentzako beken udal programaren
oinarriak eta deialdi publikoa onetsi zituen 2019ko martxoaren 11ko erabakiz —2019ko apirilaren
3ko ALHAO, 41. zenbakia—, 70.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2019ko ekitaldirako luzatutako
udal aurrekontuko 0821.4331.489.49 partidaren kontura.

2019ko ekainaren 14ean deialdiaren lehen faserako eskabideak aurkezteko ezarritako epea
bukatu zelarik, Ekonomia-Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko
zinegotzi ordezkariak 2019ko uztailaren 22an ebatzi zuen aipatutako deialdia, beken bigarren
ehuneko 50a ordaintzeko baldintzatzat jarrita egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehaz-
ten dituen oroitidazkia aurkeztea, deialdiaren 4. oinarrian xedatutakoaren ildotik.

2019ko irailaren 23ko dataz, enpresa-proiektuen tutoretzaren eta jarraipenaren arduradunak
txostena egin zuen, burututakoaren oroitidazki teknikoa aurkeztu duten onuradunei bekaren
bigarren ehuneko 50a ordaintzearen alde.

Deialdian ezarritako prozeduraren arabera, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunko-
rren Saileko (zein 2019-2013 agintaldia hasi ostean Ekonomia-Sustapenaren, Enpleguaren,
Merkataritzaren eta Turismoaren Saila deitzen baita) zinegotzi ordezkariari dagokio eskabideak
ebazteko eskumena.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, bekadunen
proiektuak jarraitzeko izendatutako tutoreak egindako proposamena ikusirik, eta eskumenak
eskuordetzeko 2019ko ekainaren 21eko erabakia dela medio, Ekonomia-Sustapenaren, Enple-
guaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak hauxe ebatzi du:

Lehena. Deialdiaren 4. oinarrian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren,
2019ko uztailaren 22ko ebazpenaren bidez ekintzaileei laguntzeko emandako beken bigarren
ehuneko berrogeita hamar pertsona hauei ordain dakien onestea:

	DNI	IMPORTE
1	44675328J	1.053,36
2	44679499K	1.026,81
3	16291279B	1.026,81
4	18597294T	1.026,81
5	49013255W	734,70
6	72754587K	734,70
7	45818657N	681,58
8	72830980P	681,58
9	78902896Q	655,03
10	22756179W	628,47
11	72829226W	601,92
12	Y4404730Z	575,36
13	44685627P	522,25
14	X7740901K	469,14
15	45663866B	442,59
16	Y6254419C	442,59
17	34107803E	442,59
18	44675956C	442,59
19	X2841064N	442,59
20	58005459B	442,59
21	16283436B	442,59
22	72850719J	442,59
23	72726697F	442,59
24	72751480L	442,59
25	Y1880580E	442,59
26	58031492P	442,59
27	72737733 ^a	442,59
28	72727005Q	442,59
29	16269377M	442,59
30	X4198274S	442,59
	Total	17.499,96

Bigarrena. Ordainketa horien zenbatekoa (17.499,96 euro) 2019rako luzatutako udal aurrekontuko 0821.4331.489.49 partidan deialdirako zorpekinaren kontura jasota uztea (7. oinarria).

Hirugarrena. Ebazpen honen bitartez ematen den laguntza ekonomikoa "Enpresa Lokala 10. Inbertitu etorkizunean" proiektu europarraren barruan sartzen da, eta Europako Gizarte Funtsaren ehuneko berrogeita hamarreko finantzaketa jaso du, Euskadi 2014-2020 programa operatiboaren bitartez.

Laugarrena. Dirulaguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahal izango dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago, jasotako diru-kopurua itzultzeko eskatuko zaie.

Bosgarrena. Ebazpen hau onuradunei jakinaraztea. Orobat jakinaraztea ebazpenaren aurka, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; bestela, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da, ebazpena eman duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 30ean

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI JÁUREGUI